BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES

Temporada **2021 - 2022** *Denboraldia*

Tira! Aurrera!

Material pedagógico

ntolatzailea / Organizador *Babeslea* / Patrocinador *Dirulaguntzak* / Subvencionan

Laguntzaileak / Colaboran

Bazkidetza / Asociada a

“TIRA! AURRERA!”
Ikuskizuna

Bizitzak ameslari handiei probak jartzen dizkie, baina irabazle nahi ditu. Payasak, ekimen eta bizitasunez, bere eskuzabaltasun eta elkartasun idealen atzetik egiten du lasterka.
Ikuskizun honekin, heziketa pertsona bakoitzak askatasunaren bidean eginiko denbora-tarte gidatu gisa defendatu nahi dugu.

PANTA RHEI PRODUCCIONES, S.L.
Tfno: 945287078 E-mail: pantarhei@teatropantarhei.com Web: www.teatropantarhei.com

Pailazak misio bakarra zeukan bizitzan: zoriontsu izatea eta besteak ere zoriontsu egitea.

Zorigaiztoko egun batean, zakarrontzian amaitu zuen, pelutxe eta abandonatutako jostailu koadrilarekin batera.

Arrisku bizian daude. Badatorkie gainean zabor-kamioi "birrintzailea", haiek irensteko prest.

Pailaza lasterka abiatzen da hirian zehar laguntza bila. Bidean hamaika arrisku gainditukо ditu, eta gatibu diren haur asko, beti zaintzapean, aurkituko. Haurrek lagundu nahi diote, baina ezin. Bai, hiriak mehatxuak, hesiak, debekuak, gatazkak, abusuak gordetzen ditu.

Bizitzak ameslariak jartzen ditu frogan, baina bizitzak irabazten ikusi nahi zaitu eta Payasak ekimen eta bizitasunaz blai, eskuzabaltasun eta elkartasun idealen atzetik korrikatzen du.

MARIETAren Abestia

Marieta istorio honen protagonista da. Abestiarekin jolastea proposatzen dizuegu:

- Esaldi bakoitzarekin beste arrima batzuk sortu.
- Arrima asonante zein kontsonanteak sortu.
- Gustoko duzuen beste gai bat erabiliz bertso berriak asmatu.
- Musika honetatik abiatuz beste kanta bat egin.

Quiero jugar y sentir
El mundo descubrir
Con mis amigos reír
Y la aventura vivir.
La ciudad es una fiesta
Me gusta me asusta
La calle es la vida
Peligrosa y divertida
Decidió adentrarse en la ciudad.
La gente tiene miedo
Yo hago lo que quiero
A la Payasa ayudar MARIETA.-
(Canción)
A los peluches salvar
Que bien me lo voy a pasar.

Jolastu nahi dut eta
ezagutu mundua
Lagunekin barre egin
Eta abentura bizi.
Ta ez izan beldurrik
Hiria da festa
Gustatu, beldurtu
Kalea da bizia
Arriskutsu ta
Dibertigarria
Hirian barneratu zen.
Jendea beldur da
Banoa nire kaxara
Pailazari laguntzea
Pelutxeak salbatzea
primeran pasatzea.

TIRA! AURRERA! Ikuskizunaren inguruko informazioa

- ✓ Ikuskizunaren pertsonai nagusien aurkezpen bat IDATZIko dugu; Marieta, Urbano, Payasa.

  Gehien gustatu zaizuen egoera baten elkarrizketa planteatuko dugu.

- ✓ Marieta eta Urbanoren TOPAKETAREN ISTORIOA SORTUKO DUGU. Bikoteka egitea proposatzen dizuegu.

  Hasteko pertsonaietako bat izango gara; Marieta, neskatxa edota Urbano, etxerik gabeko arlotea. Rol hori amaitutakoan, bestea hartuko dugu. Marieta izan bazara, orain Urbano izateko txanda da.

  Pertsonaienganako hurbiltasun fisikoa lortzera jolastuko gara: Nola ibiltzen du? Nolakoa da bere ahots - tinbrea? Zer egiten du bakoitzak? Nolako nortasuna daukate?

- ✓ KOMIKIA EGITERA! Gai nagusia islatzen duen hamar binetetako sekuentzia sortu.

  Aurkezpena hiru binetetan egingo duzue, korapiloa edo gatazka lau binetetan eta besteak amaiera egiteko.

  Proposamen hau taldeka egin daiteke.

- ✓ DRAMATIZAtuko dugu ikuskizunean tratatzen diren gaiak:
  - Nagusien arteko erlazioa (familia, gazteak, irakasleak,…)
  - Elkarrekiko laguntza
  - Joko eta asmamen ahalmena
  - Zuk topatu duzun beste gai batzuk.

Txotxongilo antzerkian bizigabeko panpina eta objektuei bizitza ematen diegu. PROPOSATZEN DIZUEGU zabor-poltsak eta normalean barruan dauden gauzak, elementu dramatiko bezala erabiltzea, ipuin edo istorio bat sortzeko.

Bikoteka jolastuko zarete. Zuetako bakoitzak zabor-poltsa bat prestatuko du bere kidearentzat poltsa barruan lau objektu sartuko dituelarik. Beste kideak ipuina edo istorioa asmatuko du eta kontatuko digu poltsan topatuko dituen ustekabezko objektuez baliatuz.

Zuek antzezleak zarete eta objektuek bizia daukate.

- ✓ EGOERAK INPROBISATUko ditugu hirian behar desberdinak dituzten pertsonaien inguruan.

- ✓ PERTSONAIAK MARRAZTUKO DITUGU (TXOTXONGILO ETA AKTOREAK) GOGORATZEN DITUZUEN BEZALA.

IKASGELAN GOGOETAK EGITEKO EKINTZAK

- Zer da zuen hiritik gehien gustatzen zaizuena?
- Eta gutxiena?
- Nolako hiria amesten duzue?
- Zeintzuk dira zuen hirian topaketarako leku aproposak?

MARRAZTU ezazue bi hiri desberdin ikasgelako bi paretetan paper luze bana jarriz:

Hirietako bat pertsonen arteko topaketa erraztuko du eta beste hiriak aldiz pertsonak bakandu eta haien arteko erlazio eza ahalbidetuko du.

- Kalean aritzeko zein jolas ezagutzen dituzue?
- Horietatik zeintzuetan aritzen zarete?
- Eta zuen senideekin?

Aste betez jolastokian ohizko jolasetan zuen irakasleekin aritu. Zuetako bakoitzari senitartekoek kontatutako joko kolektibo bat proposatuko du.

- Eguneroko zein momentutan eskaini ahal diozue besteei zuen laguntza edo babesa?
- Lagunik duzue?
- Zer da lagun bat izatea?
- Zein egoeretan sentitzen duzue bakardadea?
- Beldurrik sentitu duzue noizbait?
- Noiz?
- Zerk beldurtzen zaitue?

Zuen hirian sentitzen dituzuen arrisku eta egoeren zerrenda bat prestatu; argiztapen gutxiko zonaldeak, soinuak eta hotsak, trafikoa (txarto seinaleztatutako oinezkoentzako pasabidea, semafororik gabekoak,...).

Hiriaren plano bat erabili dezakezue eta arrisku mota, koloreetako gometxekin markatu gero ikertu eta irtenbideak proposatzeko.

Nahi duzuen auzoaren planoa aukeratu dezakezue.

“PRINTZESA” GURE ESKULARRU-TXOTXONGILOA

Eskularru – Txotxongiloak primerakoak dira jolasteko, oso erraz eraikitzen dira eta oso adierazgarriak izaten dira.

Printzesa, Urbanoren lagun arratoia, eskularruzko txotxongiloa da. Pelutxe, polar edota oihal lodi zati batekin zuen maskota diseinatu eta egitea proposatzen dizuegu.

Pausoz - pauso azalduko dizuegu pelutxe zein oihal zati batekin eskularruzko-txotxongilo bat nola egin.

- Beharrezko materiala: _____

* Ile motzeko pelutxea.
* Goma – aparra (1 zm-ko lodierako plantxa)
* Jostorratza eta haria
* Artaziak
* Errotulagailuak
* Kola
* Feltroa.

- Goma - aparreko atalak _____

Oharra: Ez da ezinbestekoa goma-aparra erabiltzea, baina guk gomendatzen dugu euskarri gisa egiten duelako eta baita sendotasuna mantentzen duelako ere.

1) Txotxongiloaren burua egiteko behar ditugun piezak paper batean marraztuko ditugu. Panpinaren buruaren siluetaren patroia; Muturretik leporainoko beste pieza bat, eta beheko partearentzat, bi aldeak lotuko dituen beste pieza bat.

2) Errotulagailu batekin patroiak markatu ditugu goma-aparrean. Burlaren siluetatik, bi pieza marraztu behar ditugu.



3) Piezak moztuko ditugu.

4) Pieza guztien ertzetan itsasgarria jarri, lepoaren behealdean izan ezik eta lehortzen utzi minutu batzuk. Bi azaletan zabaldu itsasgarria eta lehor dagoenean bi atalak elkartuko ditugu.

5) Alboetako bi piezak elkartu erdiko piezaz baliatuz. Piezarik handiena goiko aldean kokatuko dugu. Lehendabizi, muturra eta lepoa elkartuko ditugu gero gutxika-gutxika bi aldeetarantz itsasteko. Azkenik, beheko piezarekin gauza bera egingo dugu. Imurtxi egingo dugu ondo finkatzeko.

- Pelutxe zatiak _____

1) Pelutxeari, goma-aparrean buru eta beste zatiei egindako marka berdinak egingo dizkiogu.

2) Atalak moztuko ditugu.

3) Elkartu eta josiko ditugu. Buruko atalak, goma – aparrean elkartu dugun bezala.

- Belarriak. _____

1) Paper batetan belarriak marraztuko ditugu.

2) Patroi honekin pelutxean bi piezak markatuko ditugu (belarrien atzeko partea) eta beste bi pieza feltroan aurreko partearentzat.

3) Moztu eta josiko ditugu.

- Begiak. _____

1) Goma-aparrean betazalak egiteko bi pieza txiki moztuko ditugu.

2) Buruko pelutxean beheratze txiki bat egingo dugu (begiak kokatzerakoan itsasgarria jarri ahal izateko). Betazalen behe aldean ere itsasgarria jarri eta lehortzen utziko dugu.

3) Betazalen atalak itsatsi eta obalo piura emango diogu. Goma-aparrean zein begien atzealdean itsasgarria jarriko dugu eta lehortzen utzi.

4) Begiak betazaletan itsatsi.

Eskuragarri dugun beste materialekin ere egin ditzakegu begiak, adibidez: feltroa, botoiak,... Mugitzen diren begiak oso ondo geratzen dira eta gainera dibertigarriagoak. Mertzeria, eskulan dendetan,... topatuko dituzue.

- Sudurra. _____

1) Goma-aparrean edo feltroan biribil txiki bat moztuko dugu.

2) Sudurrean eta berarentzako aukeratu dugun lekuan itsasgarria jarriko dugu. Itsasgarria lehortzen den arte itxarongo dugu.

- Txotxongiloaren eskua edo eskuzorroak. _____

1) Paper batetan eskuzorroak marraztuko ditugu. Kontutan izan gure eskuak sartzeko lekua egon behar dela.

2) Feltroan lau piezak markatu.

3) Moztu, lotu eta josiko ditugu.

4) Arratoiaren isatsa eta biboteak nahi dugun luzera izan dezakete. Material gogorrekin egin dezakegu; erratza baten arantzak esaterako.

- PRINTZESAren amaiera. _____

1) Burua lepora josiko dugu, goma-aparra barruan dagoelarik.

2) Eskuzorroak gorputzera josiko ditugu, gure eskuak kokatuko ditugun lekuan.

Eta horrela, pauso erraz hauek jarraituz eta pazientzia apur batekin, eskularruzko txotxongiloa, Urbanoren laguna den Printzesa, gure maskota bilakatuko da.

BADAUKAZU ZURE MASKOTA!!!

Jolastu, sortu eta eskenak asmatu ditzakezu…

IRAKASLEENTZAKO ERREFLEXIOAK

Zilegi al da helduaren nagusitasuna?

Haurrak helduaren beharra dauka, eta helduak haurrarena. Haurrak berak, nahita, onartu behar du heldua bere hezitzaile aritzea.

Helduak haurraren duintasuna errespetatu behar du. Haurrak susmatzen du nolakoa beharko lukeen errealitateak. Utopikoa dena, morala, perfektua. Haurrak gizakia ideal bezala ikusten du, "ni" ideala, niaren ideal bilakatzen dena. Haurraren fantasiaren zentzuak pizten du irudimena, eta, horrekin batera, edertasunaren pertzepzioa eta mundu subjektiboen kontzeptua, erabakitzeko ahalmena eta horrek dituen inplikazioak: zergatik, zertarako eta zer helbururekin.

Helduak errealitatea jartzen du idealaren gainetik: hantxetik sortzen da pedagogiaren eta haurraren autonomiaren arteko gatazka. Borroka hori gainditze aldera, heziketa honela planteatzeko aukera defendatu nahi dugu: norbanakoak garai baten gidatzea bidean, askatasunera abiatzen den bidean, hain zuzen ere.